



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 15a

20. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira lan egin dezaten A-15 Nafarroako autobian egin gabe dauden tarteak egiteko izapideak aurreratzeko. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da sektore elektriko publikoa berreskuratuko duen prozesu baten planifikazioari ekin diezaion. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du euskararen gutxieneko ezagutza eskatzea ikasle guztiei, eta gogora ekartzen du familiek hizkuntza-ereduen artean libreki hautatzeko duten eskubidea. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresaren ondorengotzari eta belaunaldien arteko erreleboari buruzko plan bat egin dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari igor diezaion, honek haren gaineko jarrera azal dezan. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio María de Servini epaileak Rodolfo Martín Villaren aurka 2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du Burlatako Ibaialde BHIko zuzendariak pairatutako eraso, eta bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkio. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Burlatako Egunsenti haur eskolari eta Erripagaña auzorako 0-3 eskaintza publikoari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea (12. or.).

—Nafarroako Foru Berria garatzeko ponentzia. PONENTZIAREN LANAK BUKATZEKO EPEA LUZATzea (13. or.).

**I SAILA:**

**Planak, komunikazioak eta programak:**

—Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATzea (14. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira lan egin dezaten A-15 Nafarroako autobian egin gabe dauden tarteak egiteko izapideak aurreratzeko.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen baitira lan egin dezaten A-15 Nafarroako autobian egin gabe dauden tarteak egiteko izapideak aurreratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, batzordean eztabaidatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira lan egin dezaten A-15 Nafarroako autobian egin gabe dauden tarteak egiteko izapideak aurreratzeko.

A-15 autobiak, Nafarroako autobia izenez ere ezaguna denak, Nafarroako hiriburua Madrilekin lotu beharko luke Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak Almazán eta Tuteran artean falta diren zatiak eraikitzeaz amaitzen duenean.

Komunikazio-bide zabal eta azkarrak, A-15 autobia kasu, egiazko garapen-ardatzak dira; izan

ere, bide horiek zeharkatzen dituzten lurraldeetako enpresen salgaien garraioak eta herritarren garraioak dituzten oinarrizko beharrianak betetzen dituzte, eta, horretaz gain, estrategikoak dira lurralde- eta nazio-garapen ekonomikoaren alorrean. A-15 edo Nafarroako autobia A-2 autobiarekiko lotunean hasten da, Medinacelin, eta esan daiteke Donostian amaitzen dela.

A-15 autobiak, behin amaituta, funtsezko ardatz izan beharko luke, ez bakarrik Euskadi eta Madril lotzen dituelako; izan ere, hura bukatzean autobia eta autopista sare batean sartuko litzateke, etorkizunean A-1 Madril-Paris ardatzaren alternatiba izan litekeena, bai eta Kantauri-Mediterraneo Igarobidearekin bat egin ere.

Nafarroak komunikazio-ardatz nazional eta europar horiekin bat egin behar du, bai errepidez bai trenez; izan ere, etorkizunean komunikazio-bide azkarretatik gertu ez dauden eskualdeak bigarren maila batean geratuko dira garapenari dagokionez.

A-15 autobia, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak Almazán eta Tuteran artean falta diren zatiak eraikitzeaz amaitzen duenean, zuzenean lotuko ditu Iruña eta Madril, Zaragozatik pasa gabe, autobia zabaleran, eta hala saihes-tu ahalko da Castejón eta Almazán arteko 100 kilometrotik gorako errepidea, errei bakarrekoa eta salgaien zirkulazio handia pairatzen duena.

2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan ehun mila euro aurreikusten dira Soria-Tutera autobia zati bakoitzerako, eta horrek erakusten ditu, tamalez, Espainiako Gobernua egun zuzentzen dutenen aurrekontu-gabezia, interes falta, pasibotasuna, eraginkortasun eza eta konformismoa, eta, modu subsidiarioan, Nafarroako Gobernuarena ere bai; izan ere, nafarrok urte asko eta hitz emandako A-15erako inbertsioetako milioi euro asko galdu ditugu.

Navarra Sumak uste du Nafarroako autobiako lanak ekitaldi honetan hasi beharko lirakeela, lehentasunezkoak baitira Nafarroako Foru Komunitate osoaren garapen sozial eta ekonomikorako eta nafar guztientzat enplegua eta aberastasuna sortuko duten enpresa-ekimen berrien finkatzea errazteko.

Ongi planifikatu eta finantzatutako errepide sare bat izateak oinarriko zerbitzuetan egiten den gastua arrazionaliza dezake, eta hori bakarrik bada nahikoa motibazioa arazoa konpontze aldera elkarrekin lan egiteko, errepideen egoerak gizartean duen eraginarekin eta bide berriak ez gartzarekin batera.

Ebazpen proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du azkartu ditzan Nafarroa-

ko autobiaren Almazandik Tuterara bitarteko zati guztien administrazio-izapideak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu Villar del Campo eta Ágrede bitarteko zatia lizita dezan, zati horrek ingurumen eraginaren aldeko ebaluazioa baitu 2018az geroztik eta aurrekontu-partida ere bai baitzuen 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, ingurumen eraginaren ebaluazioak eta beste administrazio-eskakizun batzuk amaitu ostean, autobiaren gainerako zatiak lizita ditzan hura erabat amaitu arte.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da sektore elektriko publikoa berreskuratuko duen prozesu baten planifikazioari ekin diezaion.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita sektore elektriko publikoa berreskuratuko duen prozesu baten planifikazioari ekin diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du,

hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Sektore elektrikoa estrategikoa da edozein herrialdetan, ez soilik funtsezkoa delako pertsonen oinarriko beharrianak asetzeko, baizik eta baita ere gainerako sektore ekonomikoen garapena baldintzatzen duelako.

Gure herrialdean, energia arazo bilakatu da gure ekonomiarako; izan ere, energia iturri izugarriak baditugu ere, eguzkia eta haizea kasu, beste herrialde batzuek saltzen dizkiguten energiarekiko mendekotasuna dugu.

PSOEk eta PPK Espainiako sektore elektrikoaren pribatizazioari ekin ziotenean, "iraultza elektriko bat" iragarri zuten, "prezioak jaitsi eta lehiakortasuna irabazteko".

Emaizak argiro kaltetu du gizartearen gehien-goa; onura, berriz, gutxi batzuentzat soilik izan da.

Enpresa publikoen pribatizazioak izugarri areagotu ditu jabe berrien irabaziak, herritar guztien eta enpresa horietako langileen bizkar.

Urteik urtera garestiago da energia, eta sektore energetiko gero eta kontzentratuagoa dugu.

Krisialdiaren hasieratik, konpainia elektrikoen irabaziak modu esponontzian handitu dira. Bien bitartean, familien batez besteko faktura elektrikoa ehuneko 70 garestitu da, ez ordaintzeagatiko argindar-etenen kopuruak urteko milioi eta erditik gora egiten du eta bost etxebizitzetatik batean beroa pasatzen dute udan eta hotza neguan.

Irabazien areagotze horrekin arazo ekonomikoak dituzten sei milioi familia langileren faktura elektrikoa ordain liteke.

Milaka milioi irabazita ere, enpresa horiek hamarna milaka pertsonak behar-beharrezkoak dituzten lanpostuak suntsitzen ari dira, soldata eskandalagarriak dituzten zuzendaritza postuak PP, PSOE eta CiUko politikariei eskaintzen dizkieten bitartean.

Irabazi izugarri horiek, denon artean ahalegin handiz ordaintzen ditugunak, gutxiengo pribilegiatu baten eskuetan geratzen dira.

Enpresa publikoak balira, irabazi horiek erabili ahalko lirateke inbertsioa planifikatzeko eta epe luzera atzerriarekiko dugun mendekotasuna murrizteko, lanpostu gehiago sortzeko eta gure herrialdean inork hotzik pasa ez dezan ziurtzeko.

Hori dela eta, beharrezkoa da langileok eskatzea lehen denona zena berriro herriari itzul dakion eta enpresa elektriko handiak berriro publikoak izan daitezen.

Sektore elektrikoaren ondorioen aurrean (energia gero eta garestiago, lanpostuak suntsitzea eta prekarizazioa, diru-sarrerarik ez duten familiei argia etetea, kanpoarekiko mendekotasuna, irabaziak soilik gutxiengo batentzat, eta abar), erakundeetatik balioan jarri behar ditugu sektore elektriko publiko batek izanen lituzkeen onurak (energia merkeagoa, enplegu gehiago eta hobea, bizitzeko gutxienerako energia bermatzea, burujabetza energetikoa, gizarte osoarendako irabaziak).

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du sektore elektriko publikoa berreskuratuko duen prozesu baten planifikazioari ekin diezaion, gizartearen gehiengoaren eta herrialdearen mesedetan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du euskararen gutxieneko ezagutza eskatzea ikasle guztiei, eta gogora ekartzen du familiek hizkuntza-ereduen artean libreki hautatzeko duten eskubidea.**

### *IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu euskararen gutxieneko ezagutza eskatzea ikasle guztiei, eta gogora ekartzen du familiek hizkuntza-ereduen artean libreki hautatzeko duten eskubidea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte Lopez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten duen euskararen gutxieneko ezagutza unibertsalizatzea eskolatzearen bidez, eta gogora ekartzen duen familiek hizkuntza-ereduen artean libreki hautatzeko duten eskubidea

Zioen azalpena

Gure erkidegoan egindako inkesta soziolinguistiko guztiek egiaztatzen dute euskara era ezberdinean agertzen dela lurraldean zehar. Zehazki, 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskaraz ongi edo oso ongi hitz egiten duten 16 urtetik goitikoen portzentajea % 61 da eremu euskaldunean, % 11,3 eremu mistoan eta % 2,7 eremu ez euskaldunean.

Euskararen Legeak (2017an erdaraz ere “Ley Foral del Euskera”) 1986an eremu horiek sortzea ez zetorren, beraz, inongo kapritxotik, legegilearen kontzientziatik baizik, errealitate anitz hori islatzeko beharragatik. Horri ez zegoen kontraesanean legeak berak euskara “Nafarroako berezko hizkuntza” gisa jasotzearekin, ez eta herritar guztiek dute hizkuntza hori jakiteko eta erabiltzeko eskubidea dutela aitortzearekin. Izan ere, alde aurretik Foruaren Hobekuntzak berak bederatzigarren artikuluan ezarria zuen euskarak gaztelaniaren batera zuen koofizialtasuna “Nafarroako eremu euskaldunetara” mugatzen zen.

Horren guztiaren arabera, Euskararen Legeak euskararen eta euskarazko irakaskuntza arautzen du “borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz” eta tratamendu ezberdina ezartzen du hizkuntza-eremu bakoitzerako. Laburbilduta, tratamendu hori da bi hizkuntzen irakaskuntza derrigorrezkoa eremu euskaldunerako eta euskararen borondatezkotasuna Nafarroako gainerako tokietan.

Planteamendu horrekiko kontraste biziarekin, Nafarroako Gobernuak prestatu duen Euskararen II. Plan Estrategikoak bilduko ditu, zirriborroari aurkeztutako zuzenketa bati emandako erantzunaren arabera, 4.1.4 proiektu bat, honako eduki honekin: “Azterketa bat egitea Nafarroako eskola adineko haur guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izateko aukerari buruz, eta analisi horretan lan egitea eragile sozialekin”.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du euskararen gutxieneko ezagutza eskatzea ikasle guztiei, eta gogora ekartzen du Euskararen Foru Legeak jasotzen duen eskubidea, familiek hizkuntza-ereduen artean libreki hautatzeko dutena, eremu bakoitzeko errealitate soziolinguistikoarekin bat.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresaren ondorengotzari eta belaunaldien arteko erreleboari buruzko plan bat egin dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enpresaren ondorengotzari eta belaunaldien arteko erreleboari buruzko plan bat egin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa-ondorengotzari eta belaunaldien arteko erreleboari buruzko plan bat egin dezan.

Zioen azalpena

Jakina denez, Nafarroako enpresa-ehuna tamaina txikikoa da, eta, berez, Nafarroako enpresa gehienetako titularrak langile autonomoak dira. Gainera, kolektibo hori nahiko zaharturik dago, batez ere landa eremuetan, eta, horren ondorioz, kasu askotan, negozioen eta jarduera ekonomikoen balizko itxiera aztertzen ari da jardueraren buru jarraitzeko errelebo faltagatik.

Efektu hori are handiagoa da egiaz autonomoak direnen kasuan; hau da, pertsona fisikoak izaki soldatapekorik ez daukaten edo oso noizbehinka

dituztenen kasuan. Autonomo horiek bakarrik daude eta zailagoa egiten zaie negozioa irekita mantentzea eta haien ondorengotza aztertzeko aukera gutxiago daukate. Autonomo mota hori – 26.000 inguru– Nafarroan Gizarte Segurantzaren izena emanda dauden 47.400tik goitikoen erdia baino gehiago dira; horietatik, 8.900 dira gutxi gorabehera 55 urte baino gehiago daukatenak.

Gainera, azken urteotan gertatzen ari den merkataritza nahiz kontsumo ereduaren aldaketarekin batera, merkataritza-desertifikazio progresibo batera garamatza horrek guztiak, bai landa-eremuan bai hiri-eremuan. Halere, egoera konplexu guztietan gertatzen denez, aukerak ere sortzen dira. Plan egoki bat eginen balitz, gazte askok aurkitu ahal izanen lukete beren enplegua autonomo zaharragoak ordezkatzuz, negozioetan goitik beherako aldaketa bat eginez, zeren merkaturia egon badago, eta kontua da merkatu hori aurkitzea eta inteligentziaz jorratzea.

Erakunde asko –enpresaburuenak, elkarte sektorialak edo langile autonomoenak– ari dira eskatzen abian jar daitezen plan horiek, enpresak mantendu ahal izatea errazteko eta negozio txikien odoluste hori arintzeko; izan ere, negozio horiek, ekonomikoki bideragarriak diren arren, ez daukate nork jarraitu horien buru.

Enpresa-ondorengotza, jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzea errazteko, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa-ondorengotzari eta belaunaldien arteko erreleboari buruzko plan bat egin dezan, belaunaldien arteko erreleboa errazteko eta jarduera eta enplegua mantentzeko enpresa-ondorengotzarik ez duten negozioetan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari igor diezaion, honek haren gaineko jarrera azal dezan.**

*EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari igor diezaion, honek haren gaineko jarrera azal dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren bidez, abian jarri du Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko plana taxutzeko prozesua. (Urtarrilaren 15ean amaitu zen jendaurrean egoteko epea).

Mozio hau sinatzen dugun alderdi politikoek zinez uste dugu Nafarroako gizartea eraiki behar

dela aniztasunetik abiatuta eta erkidegoan bizi diren guztien parte-hartzearekin, edozein dela ere haien jatorria.

Premiazkoa da gizartea eraldatzea, justuagoa eta berdinzaleagoa izan dadin, guztien eskubide sozialak eta funtsezko eskubideak bermatuz, inolako bazterketarik gabe.

Horretarako, aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren elkarbizitza bultzatu, sustatu eta bermatzea giltzarri bat da, erakunde, eragile eta kolektibo sozial guztion inplikazioa eskatzen duena.

Berriki, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokan lan egiten duten kolektiboek publikoki adierazi dituzte haien kritikak, ikusten dituzten hobetzeko aukerak eta planari egin nahi dizkioten ekarpenak, hura aberasteko eta zabaltzeko.

Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen dugu Parlamentu honetan planaren eztabaida ahalbidetu eta sustatzea, talde parlamentario eta entitate sozial guztiei aukera emanek ekarpenak egin ditzaten, planaren edukia aberaste aldera.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernua premiatzen dugu Nafarroako Parlamentuari igor diezaion Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plan, Legebiltzarrak bere jarrera azaltzeko eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 202. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Isabel Aranburu Bergua, Patricia Perales Hurtado eta Marisa De Simón Caballero



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio María de Servini epaileak Rodolfo Martín Villaren aurka 2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio María de Servini

epaileak Rodolfo Martín Villaren aurka 2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari, eta 2021eko abenduaren 17ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/MOC-00172).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du Burlatako Ibaialde BHIko zuzendariak pairatutako eraso, eta bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkio.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du Burlatako Ibaialde BHIko zuzendariak pairatutako eraso, eta bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkio.

2. Nafarroako Parlamentuak bere aitortza agertzen dio hezkuntza-komunitateari genero-

indarkeriaren aurkako borrokaren alde egiten duen lanagatik eta adierazten du beharrezkoa dela hezkidetzaren bidetik aurrera egiten jarraitzea, hori baita indarkeria matxistei aurrea hartzeko eta gizarte berdinzalea eraikitzeko tresna bakarra”. (10-22/DEC-00007).

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Eguna-ekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak zientziaren munduko genero-arrakalaren aurkako borrokan duen konpromisoa berresten du, batez ere STEM (zien-

tzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika) ize-  
nez ezagutzen direnetan.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du emakumeak eta neskak zientziaren arloan duen egin-kizun funtsezkoa, 2030 agendako ezinbesteko aldaketaren eragilea baita, eta horregatik uste du erabat beharrezkoa dela alor horietan duten parte-hartzea sustatzea”. (10-22/DEC-00008).

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Burlatako Egunsenti haur eskolari eta Erripagaña auzorako 0-3 eskaintza publikoari buruzkoa.***MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Burlatako Egunsenti haur eskolari eta Erripagaña auzorako 0-3 eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egiten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Burlatan dagoen Egunsenti haur eskola txikituta geratu zen joan den abenduko uholdeagatik.

70 haur Eguesibarko beste haur eskola batzuetara eraman behar izan zituzten eta, behin-behineko, Burlatako ludotekara.

Erripagaña auzoa hirigintza zabaltze bizardago. Gaur egun 7.000tik gora auzokide ditu, eta aurreikuspena da

laster 14.000 biztanle izanen dituela, berrikerai diren 6.000 etxebizitzak ikusita.

Familia gazteak dira, adin txikiko hurrekin. Agerikoa da auzo horrek azpiegiturak eta zerbitzu publikoak behar dituela biztanleen beharriaz erantzuteko, bereziki 0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko haur eskola nahiko.

Harrigarria da Nafarroako Gobernuak Egunsenti eskola, ikasleei (0-3) zerbitzu ematen diena, lekualdatu nahi izatea Burlatetik Erripagañara. Ez du inolako zentzurik, auzo hori oinez 20 minututik gora dagoelako Burlatako hirigunetik.

Hezkuntzako bi beharrian ezberdinak dira. Burlatak haur eskola birkokatu behar du bere hirigunean, bere haurrei arreta emateko, eta Erripagaña handituz doan biztanleriari dagozkion hezkuntza zerbitzu publikoak behar ditu.

Nafarroako Gobernuak zer planifikazio aurreikusten du 0-3 urteko ikasleendako hezkuntza arretarako Burlatako Egunsenti haur eskolari eta Erripagaña auzorako 0-3ko eskaintza publikoari dagokienez?

Iruñean, 2022ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozialetako kontseilariak 2022ko otsailaren 10ean idazki bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, zeinaren bidez eskatzen baitu Parlamentuak izenda dezala Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat, Fundazioaren estatutuen 14.2.b artikulua xedatutakoarekin bat, zeinak agintzen baitu Nafarroako Parlamentuari dagokiola berak izendatu beharreko patronatukideak hautatzea Fundazioaren xedeei lotutako pertsona edo erakundeen eta enpresen, publiko zein pribatuen, artean.

Estatutuen 8. artikulua araberak, "Fundazioaren helburua da honako hauek zuzenean kudeatzea, egitea eta egikaritzea

- Gizarte zerbitzuetako zentroak,
- Babesgabetasuna edo gizarte gatazkako egoerak dituzten adingabekoentzako behaketa-eta harrera-zerbitzuak,
- Eguneko zentroa, neurri judizialak ingurune irekian betetzeko zerbitzuaren barruan.

Aipatu zerbitzuak eskainiko dira gizarte zerbitzuen eta adingabeen babesaren arloan indarrean dagoen araudian finkatutako baldintzen arabera.

Zerbitzu horiek nagusiki fundazioak eman beharko ditu, eta ezin izanen ditu hirugarrenen eskutan utzi inongo negozio juridikoren bidez".

Era berean, hautagaitzak pertsona batez edo erakunde eta enpresa batez, publiko edo pribatua, osaturik izan beharko dira, eta Fundazioaren Estatutuen 14.1 artikuluan ezarritako gaitasunari buruzko betekizunak bete beharko dituzte: "Patronatuko kideak izaten ahalko dira jarduteko gaitasun osoa duten eta kargu publikoetan aritzeko ezgaituta ez dauden pertsona fisikoak. Pertsona

juridikoak Patronatuko kideak izaten ahalko dira, eta horiek ordezkatzeko dituen/dituzten pertsona fisikoak/fisikoak hautatu beharko dute/dituzte, aurreko paragrafoan xedatutakoa betez".

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da hautespen hori egiteko prozedurarik aurreikusten; beraz, Erregelamendu horren 37.1. bederatzigarrena artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hautespen hori erregulatzen duten arauak onets ditzan.

Aipatu artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1. Bederatzigarrena artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako izendatu beharreko patronatukide bat hautatzeko prozedura hastea (10-22/ELC-00002).

**Bigarrena.** Honako arau hauek onestea:

"1. Nafarroako Parlamentuak pertsona bat edo erakunde eta enpresa bat, publiko edo pribatua, hautatuko du, gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatuko kide izan dadin.

2. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarioen elkarteak, banaka nahiz batera, pertsona batez edo erakunde eta enpresa batez, publiko edo pribatua, osatutako hautagaitzak aurkezten ahalko dituzte, zeinek Fundazioaren Estatutuen 14.1 artikuluan ezarritako gaitasunari buruzko betekizunak bete beharko baitituzte.

3. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarioen elkarteak hautagaitzak aurkezteko idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta idazki horretan jasota ageriko dira proposatutako hautagaien onarpena eta kargu publikoetarako desgaitua ez egotearen aitortzea.

4. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatukide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 24ko 17:30ean bukatuko da.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du proposatutako hautagaiak 2. eta 3. arauetan eskaturiko baldintzak betetzen ote dituzten, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatukidearen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak izen bakarra jartzen ahalko du txartelean.

8. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituen hautagaia aldarrikatuko du.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte”.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## Nafarroako Foru Berria garatzeko ponentzia.

### *PONENTZIAREN LANAK BUKATZEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Foru Berria garatzeko eratutako ponentziak, 2022ko otsailaren 10ean egindako bileran honako erabaki hauek hartu zituen:

**1.** PONENTZIAREN LANAK BUKATZEKO EPEA **2023ko urtarrilaren 15era** arte luzatzea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa.**

### *PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari erabaki proposamenak aurkezteko epea

**2022ko otsailaren 22ra arte** luzatzea .(10-21/CDP-00011).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



